Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Tomasa Olaeta Arispe

Gernika-Lumo, Bizkaia (1912-2009)

Aurkibidea

Biografia

1912an Mendiolaondo "Mendilondo" baserrian jaioa eta Madurazar baserrira ezkondua. Grabazioa egin zenean 80 urte zituen.

Zintak

GER-025

- **Proiektua**: Lumoko historia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zarrabeitia, Alberto
- **Data**: 1994-01-01
- **Iraupena**: 46 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Algortako etxe dotore batean neskame

- **Erref**: GER-025/005
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:03:57. **Bukatu**: 00:05:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Gaztetxotan neskame joan zen Algortara, etxe dotore batera. Eskularru zuriekin zerbitzatzen zuen eta "sí, señorita" esan behar. Hiru neskame egoten ziren, amantal zuriekin eta uniformearekin. Gaur egungo aberatsak ez direla horrela ibiltzen dio. Lehen ohikoa zen neskame joatea.

2. Abadeak garia eta arrautzak batzen zituen, soroak bedeinkatzearen truk

- **Erref**: GER-025/015
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:13:58. **Bukatu**: 00:15:57
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Abadea soroak bedeinkatzen ibiltzen zen baserririk baserri. Gero, sakristauaren laguntzaz, garia, artoa eta arrautzak batzera etortzen zen, garia batzea amaitzen zenean. "Zelemina" bete gari ematen zitzaion. Soroak nola bedeinkatzen ziren. Lehen soroak ganaduaren laguntzaz lantzen ziren. Baserriko bizimodua nola aldatu den.

3. Inauterietako ohiturak

- **Erref**: GER-025/025
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:22:20. **Bukatu**: 00:23:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Inauterietan tostadak egiten ziren. Txerri "kaderak" eta belarriak jateko ohitura ere bazegoen. Inguruetan bazen marro janzten zenik ere. Gernikan, berriz, maskararekin ibiltzen ziren.

4. "Bastoste" eguna lagunekin ospatzen

- **Erref**: GER-025/026

- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:23:35. **Bukatu**: 00:24:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Inauteriak aurretik "Basatoste" eguna ospatzen zuten. Auzoko lagunekin mendira joan eta txerrikia jaten zuten, sutan erreta,

5. Bost pezeta ordainduta, okela jateko baimena

- **Erref**: GER-025/028
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:26:08. **Bukatu**: 00:27:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Okela jan ahal izateko, buldak hartu behar izaten ziren. Abadeak edukitzen zituen papertxo batzuk izaten ziren. Bost pezeta balio izaten zuten. Orduan diru asko zen.

6. Garizuman, jauna hartzean, txartela jaso eta Pazkoetan itzuli

- **Erref**: GER-025/029
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:27:32. **Bukatu**: 00:29:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Garizuman "txantelak" banatzen zituen abadeak jauna hartzerakoan, nork hartu zuen eta nork ez jakiteko. Gero, Pazkoa ostean, baserrietara etortzen zenean, eskatu egiten zuen txartel hori. Derrigorra izaten zen jauna hartzea.

7. Lumoko sakristian bakailaoa eta ogia jateko ohitura hiletetan

- **Erref**: GER-025/032
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:30:38. **Bukatu**: 00:32:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
<p>Hileten inguruko azalpenak. Andariak familiak aurkitu behar izaten zituen.

Auzoko mutil gazteak izan ohi ziren. Garai batean hiletara joaten ziren guztiei bakailaoa eta ogia ematen zitzaizkien Lumoko sakristiako ezkaratzean. Bakoitzak bere sardexka eraman behar izaten zuen etxetik. Gerora, ohitura hori galdu egin zen eta Lumoko tabernan ematen zitzaien jaten bertaratutakoei.

8. Ezkontza deiak; dotea

- **Erref**: GER-025/037
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:35:03. **Bukatu**: 00:37:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Garai batean hiru dei egiten ziren ezkontza aurretik, domeka bakoitzean bat. Azkenengoan, abadeak esaten zuen norbaitek zerbait bazuen esateko, hiru egun pasa aurretik adierazteko. Ezkontzetan kontratu modukoak egiten ziren. Dotea; bakoitzak ahal zuena. Ohikoa izaten zen logela bat sartzea dotean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com